

BERRI PAPER

Nº16

MARIENEA BASAURI
2025 · 2026 IKASTURTEA



EUSKARA


BASAURI



MARIENEA
basaurio Emakumeen etxea
casa de las Mujeres de basauri

HARREMANETARAKO ETA MATRIKULAK EGITEKO

**MARIENEA
BASAURIKO EMAKUMEEN ETXEA**

TELEFONO-ZENBAKIA: 946 124 100

**HELBIDE ELEKTRONIKOA:
MARIENEA@BASAURI.EUS**

**ORDUTEGIA: 9:30-14:30 ETA 16:00-20:30,
ASTELEHENETIK OSTIRALERA
(OSTIRALETAN, GOIZEZ BAINO EZ)**

**HELBIDEA: KAREAGA GOIKOA 54,
48970 BASAURI (BIZKAIA)**

**INSTAGRAM:
@MARIENEABASAURI**

WEBGUNEA: BERDINTASUNA.BASAURI.EUS

DATA ZEHATZETARA BIDERATUTAKO EGITARAUUA:



A25 | Indarkeria Matxistaren
aurkako eguna



M8 | Emakumeen Nazioarteko
Eguna



A26 | M17 | E28
LGTBIQ+ eskubideak
aldarrikatzeko egunak

Argitaratzailea:
Marienea Basauriko Emakumeen Etxea

Ilustrazioak, diseinua eta maketazioa:
Habemus Estudio

Inprimaketa:
Printheus

EMAKUMEENTZAKO JABEKUNTZA ESKOLA

- › Jardueretan parte hartzeko, izena aurretiaz eman behar duzue, tokia dagoen egiaztatu, eta ordainketa egin.
- › Izena Marienean bertan eman ahal izango duzue: telefonoz deitu, bidali mezu elektronikoa, edo izena eman webgunean.
- › Lehentasuna izango dute Basaurin bizi direnek.
- › Matrikula tokia badagoela egiaztatu eta gero ordaindu beharko duzue.
- › % 50eko tarifa murriztua langabezia eta LANBIDEn apuntatuta daudenentzat, DSBEa jasotzen dutenentzat, pentsiodunenentzat eta 18-24 urte arteko ikasleentzat.
- › Doan 18 urtetik beherakoentzat.
- › Haurtzaindegri-zerbitzua aukeran Basaurin bizi direnentzat (aurretiaz eskatuta).
- › Ikastaro elebidunak: edukiak euskaraz eta gaztelaniaz azalduko dira, eta parte-hartzaileek nahi duten hizkuntzan mintzatzeko aukera izango dute.
- › Jabekuntza Eskola Marienea osatzen dugun guztiona da. Horregatik, denon ardura da parte hartzen dugun ikastaro eta jarduerak zaintzea. Beraz, **GOGOAN IZAN**:
 - Zure konpromisoa behar dugu, ikastaroren batean izena ematen baduzu, etorri;
 - ezin bazara etorri, esaguzu;
 - horrela, beste norbaitek zure plaza bete ahal izango du.

Bazatoz?

BIOLENTZIA BIKARIOA

BIOLENTZIA MATXISTA DA

Data: otsailak 5, osteguna

Biolentzia-modu berriak asmatuz edo jada zeudenak moldatuz erantzun dieten gizon biolentoek berdintasunik ezei aurre egiten dieten lege eta tresnei. Helburua? Emakumeak menderatzen eta kontrolatzen jarraitzea, gizonek emakume horien jabe direla pentsatzen dutelako. Biolentzia bikarioa da umeen kontra erabiltzen dena, amei min ematen jarraitzeko. Hortaz, biolentzia matxista da.

Gaia sakontzen eta elkarrekin estrategiak pentsatzen lagunduko diguten ahotsak entzungo ditugu, auzia ikusgarri egiteko eta babes- eta aldarrikapen-sareak eraikitze.

«PUBLIKOA» ETA «KOMUNITARIOA»

KONTZEPTUAK ZAINTZEN

TESTUINGURUAN

Data: martxoak 12, osteguna

Hizlariak: Tere Maldonado eta Txoli Mateos

2023ko azaroan, milaka pertsona atera ziren kalera, Euskal Herriko Mugimendu Feministaren ekimenez, salatzeraz zaintzak ezin direla negozio izan. Feminismoarentzat, funtsezkoa da pertsonen arduratuko den eta zaintzak bere gain hartzeko eta antolatzeko konpromisoa bereganatuko duen sistema bat aldarrikatzea. Baina, nola irudikatzen dugu publikoa? Eta komunitarioa? Eta publiko-komunitarioa? Zer esanahi du kontzeptu horietako bakoitzak? Eta zeintzuk dira hitz bata ala bestea erabiltzearen ondorioak?



IDAZLE AFROAMERIKARREN

LITERATURA LITERATURA IKASTAROA

• **Formatzailea:** Ainhoa Aldazabal

• **Datak:** asteazkenetan,
urriak 1 eta 29,
azaroak 19, urtarrilak 21,
otsailak 18, martxoak 18,
maiatzak 20 eta ekainak 3.

• **Ordutegia:** 18:00 – 20:00

• **Matrikula:** 10 € **GAZTELANIAZ**

Emakume afroamerikarren idazkera, askotan ikusezin bihurtu eta, oraindik ere, oso ezezaguna bada ere, iparramerikarren artean dagoen aniztasunaren erakusle da. Sistema esklabistaren aurka borrokatu ziren emakumeen literatura berrikusiko dugu, baita aske jaio arren, sistema erabat arrazista eta misogino batean bizi izan ziren emakume idazleena ere. Eleberriez gain, saiakerak, autobiografiak eta poesia asko irakurriko dugu.



PELBIS-ZORU TAILERRA, ETA ASKOZ GEHIAGO...

- **Formatzaileak:** Vanesa Porret
Isabel Relancio
Saioa Hernandez



- **Datak:** ostegunetan,
urriaren 23tik
abenduaren 11ra

- **Ordutegia:** 17:00 – 19:00

- **Matrikula:** 10 € **GAZTELANIAZ**

Ikastaro honetan, gure gorputzaren kontzientzia hartuko dugu, Fendelkrais metodoaren bidez; sendotze-, adierazpen- eta autozaintza-teknika berriak landuko ditugu.

*Ez da jarduera terapeutikoa edo lesioak sendatzekoa

DANTZA PELBIKOA

- **Formatzailea:** Marie Toure,
Emakumeak Aniztasunean
Elkartekin elkarlanean




- **Datak:** ostegunetan,
urtarrilaren 22tik
otsailaren 26ra

- **Ordutegia:** 18:00 – 19:30

- **Matrikula:** 10 € **GAZTELANIAZ**

Elkarrekin mugituko ditugu aldakak, eta dantzan egingo dugu bizitzakin sustraitzeko, mugarik gabe mugitzeko.



TXOKO FEMINISTA NESKENTZAT

Neska gazteentzat 13-15 urte

• **Laguntzaileak:** Kiskali,
Basauroiko Gazte Talde
Feminista



• **Datak:** ostiraletan,
urriak 24, azaroak 21,
abendua 19, urtarrilak 16,
otsailak 20, martxoak 20,
apirilak 17 eta maiatzak 15

• **Ordutegia:** 17:30 – 19:30

• **Matrikula:** doan **EUSKARAZ**

Neska gazteok sororitate-espazioak behar ditugu elkartzeko eta interesatzen zaizkigun gaiei buruz hitz egiteko: gorputza, harremanak, feminismoa, LGTBIQ+ borroka... Hitz egiteko eta ikasteko elkartuko gara. Eta, batez ere, elkar zaintzeko, babesteko eta maitatzeko gunea sortuko dugu.

NIRE HILEKOA, NIRE GORPUTZA

Neska gazteentzat 10-12 urte

- **Formatzaileak:** Maite Goikoetxea eta Ella
- **Datak:** maiatzak 6 asteazkena
eta 7a osteguna
- **Horario:** 17:30 - 19:30
- **Matrikula:** doan **EUSKARAZ**

Nolakoak dira gure gorputzak? Hilekoak min ematen du? Zalantza horiek eta gehiago argituko ditugu tailer honetan. Elkarrekin ikasiko dugu eta gure esperientziak partekatuko ditugu. Eta, amaitzeko, graffiti tailerra egingo dugu!





BRIKOLEA

- **Formatzaileak:** Ana Oveja Uribe eta Ana Fernández
- **Datak:** astelehenetan, urtarrilaren 12tik otsailaren 23ra
- **Ordutegia:** 18:00 – 20:00
- **Matrikula:** 10 € **GAZTELANIAZ**

Konponketa txikiak egiteko gai izateak gure autoestimua eta independentzia indartzen ditu, eta, gainera, garrantzitsua da gauzak gure kabuz egitea, eta dirua dirua aurrezteko aukera ematen digu. Konponketa txikiak egiten ikasiko dugu, hala nola bandak, tiraderak, pertsianak... konpontzen.



GURE MEMORIA FEMINISTA ANTZERKI TAILER PERFORMATIBOA

• **Formatzailea:** Haizea Murguía

• **Data:** astearteetan,
urtarrilaren 13tik
martxoaren 17ra

Sortutako pieza martxoaren 24an aurkeztuko da.

• **Ordutegia:** 18:00 – 20:00

• **Matrikula:** 20 € **GAZTELANIAZ**

Feminismoaz jarduten jarraituko dugu, memoriari eta antzerkiari lotuta. Horretarako, sareak, loturak eta sororitate-estrategiak sortuko ditugu. Gainera, eszenarako tresnak eskuratuko ditugu, antzerki- eta performance-kodea ezagutuko dugu, eta pieza kolektibo bat sortuko dugu!



AUTOZAINZA, AUTOESTIMU ETA AHALDUNTZE SEXUALERAKO TAILERRA

Adimen-desgaitasuna duten emakumeei
autoezagutza-prozesuan laguntzeko
ikastaroa.

- **Formatzailea:** Saioa Hernandez,
Gorabiderekin elkarlanean



- **Datak:** asteazkenetan,
urtarrilak 15, otsailak 19
eta martxoak 19

- **Ordutegia:** 18:00 – 19:30

- **Matrikula:** doan **GAZTELANIAZ**

Gure gorputzak eta emozioak ezagutzen,
zaintzen eta mimatzen jarriko dugu arreta,
geure burua errespetatuz eta geure
buruarekin eta inguruarekin harreman
osasuntsua izatea merezi dugula sentituz.

EMAKUMEAK ETA MENDIA ZIKLOA

Baskonia Mendi Taldearekin elkarlanean



GR-11 ZEHARKALDI BAT BAINO GEHIAGO

- **Hizlariak:** Elixabete Arbe, Johanna Maluenda eta Bego González
- **Data:** apirilak 16, osteguna
- **Ordutegia:** 18:00 – 19:30
- **Matricula:** doan **ELEBIDUNA**

4 emakume eta 3 txakur, hainbeste maite dituzten Pirinioak zeharkatzen, GR-11 ibilbideari jarraituz. Autonomo, elkarrengandik ikasten, emakume mendizale moduan ahalduntzen eta naturaz gozatzen. Elkarrekin eraikitzen, elkarrekin ametsak betetzen.

MENDIAN ORIENTATZEKO TAILERRA

- **Formatzailea:** Tontxu Larrinaga
- **Data:** apirilak 18, larunbata
- **Ordutegia:** 10:00 – 16:00
- **Matrikula:** doan **EUSKARAZ**

Mendira joan nahi duzu, baina galtzeko beldur zara? Mendira bakarrik zein elkarrekin joateko baliabideak ezagutuko ditugu, ingurune berriak esploratu ahal izateko eta mendiaz elkarrekin gozatzeko.



... KALEAK GUREAK ERE BADIRELAKO

EMAKUMEEN HERRI-BAZKARIA, BASAURIKO JAIETAN

• **Data:** urriak 14, asteartea

Urtero bezala, batera bazkaltzeko eta elkarrekin gozatzeko aukera izango dugu Basauriko jaietan. Sanfaustoetan, ikusi egingo gaituzte, kaleak hartuko ditugu eta!

* Bazkarirako tiketak, laster eskuragarri, Marienean

ONDARRUKO EMAKUMEEN AZTARNEN IBILBIDEA EGITEKO TXANGOA

• **Data:** apirilak 25, larunbata

Memoriak orainaldia ulertzen eta etorkizuna irudikatzen laguntzen digu. Ezinbesteko ariketa da, oso garrantzitsua feminismoarentzat eta berdintasun-politikentzat. Aurtengoan, Ondarrura joango gara, emakumeen aztarnen ibilbidea egitera.



BASAURIKO EMAKUMEEN V. HERRI LASTERKETA

Martxan daude jada Marieneako Korrikalariak!! Aurten, inoiz baino gogotsuago, Basauriko Emakumeen V. Herri Lasterketa egingo dugu. Animatuko zara?



BASFEMBAND, XV. URTEURRENA

Gure taldeak 15 urte bete ditu! Jabekuntza Eskolako tailer batean hasi zena, banda bat da gaur egun, danborren erritmoarekin aldarrikapen feministak laguntzen dituen. Lagun gaitzazu haiekin batera urteurren berezi hori ospatzen.

IKASTURTE AMAIERAKO JAIA

Ikasturtea luzea da... amaitu dela ospatu beharko! Egindako lana eta elkarrekin egoteko aukera izan dugula ospatuko dugu. Bizitakoa konpartituko dugu, eta bizipen berriak sortzen hasiko gara. Ezagutzen bagaituzu, ongi, eta lehenengo aldiz etortzen bazara Marieneara, ongi ere bai. Ez zaitez kanpoan geratu! Animatu eta parte hartu!

JABEKUNTZA ESKOLAKO TALDEAK

Tailerrak eta ikastaroak bukatzen direnean, emakume askok erabakitzen dute, euren kabuz, batzen jarraitzea. Marieneak talde horiek babesten ditu, eta erabiltzaileen eskura jartzen ditu bertako baliabideak. Ezagutu taldeak!

01 ELKARREKIN OINEZ

Elkarrekin oinez ibili, elkar ezagutzeko, lagunduta joateko, sareak ehuntzeko, elkarri laguntzeko... sasoiari egoteko. Asteazkenero irteten gara Marieneatik, 10:30ean.

02 HEMEN GAUDE

Guretzat garrantzitsuak diren gauzez hitz egiteko eta zenbait ekintza antolatzeke elkartzen gara. Emakumeen sarea ehundu nahi dugu, elkar zaintzeko, lagunduak sentitzeko, taldean parte hartzeko eta jakintzak elkartrukatzeko.

16

03 MARIENEA KORRIKALARIAK

Marieneak Korrikalariak

Elkarrekin korrika egiten dugu, eta horrek indartsu egiten gaitu. Kirola kaleak hartzeko beste modu bat dela uste dugu, eta ikusgarri bihurtzen gaitu, gainera. Ez dugu korrika egiten ihes egiteko, erronka berriei aurre egiteko baizik. Ez gara eliteko kirolariak. Horregatik, zuk ere lekua duzu gure entrenamenduetan. Animatu zaitez!

04 TOPAKETA SORTZAILEAK

Margotu, collagea egin edo argazkiak brodatu nahi dituzu? Bi astearterik behin biltzen gara, 18:00etatik 20:00etara. Parte-hartzaile berriak ongi etorriak dira. Atera zure barruko artista, eta gozatu!



05 EMAKUME FEMINISTA ZAHARRAK

Zatoz Basauriko emakume zaharren egoeraz feminismotik hausnartzera. Baditugu proposamenak, eskubide kolektiboa den zaintza feminista Basaurin gauzatzeko. Hamabostero biltzen gara, asteazken goizetan, Marienean.

06 BASFEMBAND

Danborrak elkarrekin jotzen ditugu, eta erritmoa jartzen diegu feministen aldarrikapenei, espazio publikoan. Astero elkartzten gara eta sarean lan egiten dugu, beste banda batzuekin. Eta 15 urte beteko ditugu, 2026an!



07 ESTEREOTIPAK OSASUN MENTAL FEMINISTA



Osasun mentaleko elkarte feminista bat gara, osasun mentalari buruz hausnartzeko biltzen garenak, estereotipoak hausteko eta gizarte-aldaketaren alde modu kolektiboan ahalduntzeko. Parte hartzeko eta informazio gehiagorako: @esterotipak



08 MARIENEA KO BOLLERA TALDEA



Marienean sortutako bollera feministon taldea gara. Gogotsu gaude barne-mailan zein kanpora begira zenbait gai lantzeko, feminismoa eta bollera izatea ardatz izanda, betiere. Gurekin hausnartzera etorri nahi baduzu, animatu! Marienean edo @marieneakobollerentaldea-n aurkituko gaituzu! Inoiz ez da berandu bollera izateko!

09 MARIENEA KO EUSKARA BATZORDEA

Marieneako Euskara Batzordea duela 9 urte sortutako lantaldea da. Euskara eta feminismoa uztartzea dugu helburu. Basauri herri euskaldun eta feminista izateko egiten dugu lan, euskaldunak eta feministak garelako. Gure taldeak ikasturtean zehar bultzatzen dituen ekimenetara eta gurekin bat egitera gonbidatzen zaituztegu! Bazatozte?

HERRITAR GUZTIENTZAKO JARDUERAK

* Jarduera guztiak doakoak dira



PODCAST ZIKLOA

Gaur arte erabili ez ditugun bideak erabiltzen hasiko gara, eztabaida feministak aztertzeke, horietan sakontzeke, gogoetatzeko eta gizarteratzeko. Podcastak iritsi dira Marieneara ere! Ikasturte honetan, hiru egingo ditugu:

• **Ordutegia:** 18:00 – 20:00

EMAKUMEA, ERABAT MASKULINOA DEN MUSIKAREN INDUSTRIAN

• **Antolatzailea:** Ameba kultur elkarte

• **Data:** azaroak 6, osteguna

• **Dinamizatzailea:** Emilia Arias

• **Parte-hartzaileak:** La Furia, Ibone Iza eta Maite Alaña

ELEBIDUNA

BAKARDADEA ERLATIBOA DA (ETA LAGUNARTE ASKO ERE BAI)

• **Data:** abenduak 18, osteguna

Bakardadeari buruzko solasaldia, Mónica Ramos eta Esterotipak Elkartearen artean non Basauriko Feminista Zaharrak eta Kiskali taldeek parte hartuko dute eta Virginia Imazen Clownklusioekin bukatuko dugu.

GAZTELANIAZ

BARREZ LEHERTZEKO: HITZ EGIN DEZAGUN MENOPAUSIAZ

• **Data:** apirilak 30, osteguna

• **Dinamizatzailea:** Bea Egizabal


• **Parte-hartzaileak:**
Saioa Hernandez (sexologoa),
Janire Miranda (emagina) eta
Iratxe Sesma Saiz (dietista eta PNI)

GAZTELANIAZ

HAURREN AURKAKO SEXU ABUSUEI BURUZKO LIBURUAREN AURKEZPENA: «EZ ERRAN INORI»

- **Egilea:** Maddi Ane Txoperena
- **Data:** urriak 29, asteazkena
- **Ordutegia:** 19:00 – 20:30 **EUSKARAZ**

Ezjakintasun handia dago haurren aurkako sexu-abusuaren benetako neurriaz, baina badakigu indarkeria matxistaren kontrako borroka dela hori prebenitzeko gakoa. Hala, liburuaren aurkezpenean, haurren kontrako indarkeria mota larrienetakoari helduko diogu.



EZ ERRAN INORI

Maddi Ane Txoperena Iribarren

ZINEMAKUMEAK GARA!

- **Data:** azaroak 13, osteguna
- **Ordua:** 19:00
- **Lekua:** Social Antzokia
GAZTELANIAZ

Urtero bezala, Zinemakumeak Gara! Social Antzokiarekin elkarlanean arituko gara, emakumeek zuzendutako film bat proiektatzeko.



«POR MUJER. UNA HISTORIA


DESIGUAL» LIBURUAREN AURKEZPENA

• **Egilea:** Cristina Gutierrez-Meurs

• **Data:** azaroak 20, osteguna

• **Ordutegia:** 18:00 – 20:00
GAZTELANIAZ

Ustekabeko topaketa batek hari ikusezin bat azaleratzen du, garai desberdinetakoak diren eta isiltasunari aurre egiten dioten bizitzak eta ahotsak dituzten garai desberdinetako emakumeak elkartzen dituena. Eskutitz, albiste, testigantza eta oroimen zatiak gurutzatzen dira, ahanzturari kontra egiten dion mosaiko bat eraikiz. Bidaia pertsonal eta kolektibo horretan, hitzek, irudiek, bizipenek eta istorioek bat egiten dute, denaren gainetik izateari utzi nahi izan ez zioten haiek aldarrikatzeko.



BADAGO HIRIGINTZA FEMINISTARIK?



- **Antolatzailea:** Basauriko Emakumeen Elkarte
- **Data:** abenduak 10, asteazkena eta 11a, osteguna
- **Ordutegia:** 18:00 – 20:00 **ELEBIDUNA**

Nola daude pentsatuak gure hiriak? Egungo antolaketak gure eguneroko beharrei erantzuten die? Gaur egungo hiri- eta etxebizitza-ereduak zaildu egiten du gizartearen parte-hartzea eta kolektibizazioa. Zeintzuk dira hiria eraldatzeko gakoak, ikuspegi feminista batetik, irisgarritasunari, etxebizitza-eskubideari eta auzokide-sareei eta abarri dagokienez?



Bizipenak partekatzea eta jakintzak kolektibizatzea izan da emakume askorentzat ikasteko modu nagusia. Gaur egun, emakume asko sartu dira esparru akademikoan, ikerketan, eta batzuek ikuspegi feminista ematen diete beren lanei. Ikastaro honetan, bi ikerketatan ikasitakoa partekatuko dugu.

Ordutegia: 18:00 – 20:00

EGITURA PATRVIARKALAK ETA IKUSTEN (EZ) DIREN INDARKERIAK

• **Data:** azaroak 27, osteguna **GAZTELANIAZ**

«AMAK, AITAK ETA MEDIKUAK ANTZINAKO
GREZIA ETA ERROMAN: INDARKERIA
OBSTETRIKOAREN AURREKARI SOZIOKULTURALAK»

• **Egilea:** Irune Valderrabano González

«ONARPENA, OSATU GABEKO NOZIO BAT:
SEXUALITATE, GENEROA ETA IKUSTEN (EZ)
DEN INDARKERIA»

• **Egilea:** Maria Cegarra Cegarra

«EMAKUMEEN PARTE-HARTZE POLITIKOA: GERTATU (EZ) DIREN ALDAKETAK»

• **Egilea:** Ainhoa Etxaide
Amorrortu

• **Data:** otsailak 12,
osteguna

EUSKARAZ





ANITZERA, DESIOAREN TAILERRAK

GORPUTZA, JOLASA ETA HAUSNARKETA



- **Formatzaileak:** Eneko G. Poza eta María Díaz Angulo
- **Data:** asteazkenetan, urtarrilak 28, otsailak 25 eta martxoak 25
- **Ordutegia:** 18:30 – 20:30 **ELEBIDUNA**

Sexualitatea askatasun- eta aurkikuntza-eremu bat izan daiteke, baina aginduek, aurreiritziek eta presek bere funtsatik urruntzen gaituzte. Noiz irekitzen gara, gorputzak esan nahi diguna entzun ahal izateko? Tailer honek jolasaren eta introspekzioaren arteko topaketa proposatzen du: gorputzaren kontzientzia pizteko dinamikak, desioak eta fantasiak galdekatzen dituzten hausnarketak, eta jakin-minetik plazerarekin berriz konektatzeko ariketak. Espazio zaindu bat, esploratzeaz, zalantzan jartzeaz eta partekatzeaz gozatzeko.

MARIENEAKO I.

BOLLOJARDUNALDIA:

DESIRA OKERRAK ETA GORPUTZ
SUBERTSIBOAK



• **Antolatzailea:** Marieneako Bollera Taldea

• **Data:** otsailak 28, larunbata
EUSKARAZ

Desira heterosexual eta gorputz normatiboaren inposizioari ezetz esateko elkartuko gara. Gorputz anitzak, bestelako identitateak eta bizitzeko modu disidentekak ospatuko ditugu. BolloJardunaldia topagune bat da: bollofobiari aurre egiteko, gure gorputzak politizatzeko eta gure desiren aniztasuna aldarrikatzeko.

«LLÁMALO X»

ANTZEZLANA

• **Zuzendaria:** Ainhoa Artetxe

• **Data:** apirilak 23, osteguna

• **Lekua:** IBAIGANE

• **Ordutegia:** 19:30 **GAZTELANIAZ**

LGBTIQ+ gaia genero-ikuspegitik lantzen duen antzezlan da, emakumeen espektatibei, sexualitateari eta desioari buruzkoa. Gure piezaren protagonistak dena aldatuko duen zerbait egitea erabakitzen duten 9 lagun dira, bollerak eta bisexualak: orgia bat egitea erabaki dute.



ERAKUSKETAK ETA HORIEI LOTUTAKO JARDUERAK

Bisita librea, 09:30-14:30 eta 16:00-20:30, astelehenetik ostiralera (ostiraletan, goizez baino ez).

Marienea zabaldu zenetik, artista askoren lanak egon dira ikusgai Emakumeen Etxean: ilustratzaileak, margolariak, argazkilariak...

Emakumea bazara eta emakumeari zein feminismoari buruzko artelanak badituzu, Marienea da zure erakusketa antolatzeke lekua.

Jarri gurekin harremanetan, eta erakutsi zure lanak!

ABORTATZEKO ESKUBIDEA, GIZA ESKUBIDEA

- **Egilea:** MUGARIK GABE
- **Data:** irailaren 15etik urriaren 24ra

Azken 30 urteotan, 60 herrialdek baino gehiagok aldatu dute legedia, abortatzeko eskubidea bermatzeko. Beste batzuetan, aldiz, abortua ia erabat debekatzen duten legeak daude oraindik. Eta, hainbatetan, atzera egiten ari dira. Erakusketa honekin, errealitate horietara gerturatuko gara, eta erresistentzia zein borroka adibideak ezagutuko ditugu.



BESTE HARRI BAT BIDEAN

• **Egilea:** Nazioarteko Elkartasuna

• **Datak:** azaroaren 3tik
abenduaren 19ra

«**Raíces**» dokumentalaren bideoforuma,
azaroaren 26an, asteazkena, 18:00etan.

Zirkonio-meatzaritzak Senegalgo kostaldeko
dunetan izandako inpaktua erakusten
duen 10 paneleko argazki-erakusketa.
Komunitateen, eta, bereziki, emakumeen
eta ingurumenaren degradazioaren egoera
ikusarazten du.



UREZKO ZERUMUGA

• **Egilea:** Pasmi Iparraguirre Rivera

• **Datak:** urtarrilaren 5etik
otsailaren 28ra

Zianotipia-tailerra, urtarrilaren 17an,
larunbata, 10:00etatik 13:00etara.

Desioari, zaintzei eta gorputzari buruzko
ikerketak narratiboa, formatu askotako
zianotipiaz egindako lanen bidez.



IRREGULARTASUNA

BIOLENTZIA ASKOTARIKO ETA DESZENTRALIZATUA DA

- **Egileak:** Emigrad@s Sin Fronteras
- **Datak:** martxoak 2tik apirilak 24ra
- **Inaugurazioa eta solasaldia:** martxoaren 26an, osteguna, 18:00etatik 20:00etara

Argazki-erakusketa honen bidez ikusarazteko prozesuak indartu nahi dira. Ikusarazi, egoera irregularrean dauden emakume etorkinei, zaintzako langileei eta etxeko langileei Euskal Lurraldean eragiten zaien indarkeria eta giza eta lan-eskubideen urraketa agerian utziz.



PALESTINAKO EMAKUME BATEN BEGIRADA EUSKAL HERRITIK

- **Egilea:** Qassem Rouhaifa
- **Datak:** otsailaren 27tik apirilaren 13ra

Qassem Rouhaifa duela hilabete batzuk Euskal Herrian bizi eta hemen sortzen duen Palestinako artista da. Hau da bere bigarren erakusketa, eta, Marienean, aukera izango dugu artista zein bere obra ezagutzeko.

behin eta berriro

PLANTO EGIN ARTE! ¿CAMBIAMOS LA HISTORIA?



Ekimen honek esperientzia murgiltzaile batera garamatza, eta ez gaitu axolagabe utziko. Eszenatoki, argi eta soinu bidez, eguneroko bizitzako uneak ikusi ahal izango ditugu eta indarkeria matxistako hainbat egoeratan murgilduko gara. Horrela, matxismoak emakumeen bizitzan eta gizarte osoan duen eragina ezagutuko dugu.

Animatuko zara esperientzia honetan parte hartzera? Indarkeria matxistari aurre egingo diogu? Planto egin arte!

Herritarrentzako paseak, azaroan zehar:

- Azaroak 4, asteartea, 12:00etan
- Azaroak 13, osteguna, 18:30ean
- Azaroak 17, astelehena, 19:00etan
- Azaroak 26, asteazkena, 18:00etan

Beste egun bat finkatzeko, jarri Marienearekin harremanetan.

IRAILA 2025

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

URRIA 2025

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

AZAROA 2025

					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

ABENDUA 2025

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

URTARRILA 2026

		1	2	3	4	
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

OTSAILA 2026

						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	

MARTXOA 2026

						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

APIRILA 2026

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

MAIATZA 2026

		1	2	3		
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

EKAINA 2026

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					



GAINERA MARIENEA...

BERDINTASUN ARLOA

946 124 107

marienea@basauri.eus

EMAKUMEEN INFORMAZIO ZENTROA

946 124 101

cim-administracion@basauri.eus

SEXU INFORMAZIO BULEGOA

946 124 106 - 900 101 709

sexologia@basauri.eus

HEZKIDETZA PROIEKTUA 1ERA 2KAIN

946 124 103

baterabikain@basauri.eus

